



**ZUBIETAKO UDALA**  
(Nafarroa)  
31746

Ainhoa Mindeguia Santesteban  
Martxel Elizalde Elizalde.  
Ezeziel Loiarde Santesteban.  
Txomin Hualde Elizalde  
Pedro Hilario Santesteban Loyarte.  
Naiara Arretxea Gorosterrazu  
(Kontuhartzailea)

2024ko uztailaren 24an, 19:00ean, ohiko bilkuran elkartzen dira Zubietako Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Ernesto Domínguez Olea — Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Izaskun Mielgo Rey. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

Bilkuran hasi aurretik, gaiordenean sartu ez den gai bat aurkeztu du Udalburuak: Iziarra eta Errekaldeko bordako oihan lotea esleitu gabe geratu zen eta Patxi Mindegia Mutuberria jaunak, Forestal Zubieta, S.L.enpresaren izenean, eskeintza ekonomiko bat aurkezten du sobre itxi batean. Udalburuak gaiaren premia aztertu du eta inguruan lanean omen dagoenez lehen bait lehen erantzuteko eskatu duenez, bozkatzera deitu eta zinegotzi guztien oniritziarekin, gaia **gai ordenean sartzea erabaki da**.

### 1. AKTAK ONARTZEA.

Udalburuak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dien deialdiarekin batera banatu ziren aurreko Bilkuretako aktei. Udalburuak bozkatzera deitu du eta Udalbatzak **aho batez erabaki du**:

1.- Aurreko bilkurako akta onartzea, maiatzaren 27koa.

### 2. 2023KO KONTUEN IXTEA.

2023ko kontuen espedientea aztertu ostean, udalbatza Kontuen Batzorde Berezia gisa arituz, hurrengo **erabaki du**:

Alde 6  
Abstentzio 1

1.- Aldeko txostena ematea 2023ko kontuei.

2.- Espedientea jendaurrean jartzea 15 eguneko epean, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak aurkez ditzan.

3.- Erakustaldi publikoaren berri eman Udaletxeko iragarki-taulan.

### 3. AURREKONTU ALDAKETA 1/2024.

Kontuhartzaileak 1/2024 aurrekontu aldaketaren inguruan egindako txostena aurkeztu du. Txostenean proposatzen den aurrekontu aldaketa ondorengo hau da:



ZUBIETAKO UDALA  
(Nafarroa)  
31746

Alde batetik, diru-sarrera partida hau izango litzateke:

1-870000	DIRUZAINZAKO	GERAKINA	GASTU
OROKORRETARAKO.....			56.688,90€

1-8701000	DIRUZAINZAKO	GERAKINA	
ERAGINDAKO FINANTZAKETA DUEN GASTURAKO.....			38.210,15€

Eta aipaturiko diru sarrera hurrengo gastu partidara bideratzea proposatzen da:

1-1522-622000 ERAIKIN PUBLIKOA BERRITZEA ETA GAITZEA.....	94.899,05€
---	------------

Udalburuak bozkatzera deitu du eta Udalbatzak **hurrengo aho batez erabaki du:**

**1.- 1/2024 aurrekontu aldaketari hasierako onespina ematea.**

**2.- 1/2024 aldaketa erakustaldi publikoan jartzea 15 egunez Udaletxeko irgaraki-taulan argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.**

#### 4. AURREKONTU ALDAKETA 2/2024.

Kontuhartzaileak 2/2024 aurrekontu aldaketaren inguruan egindako txostena aurkeztu du. Txostenean proposatzen den aurrekontu aldaketa ondorengo hau da:

Alde batetik, diru-sarrera partida hau izango litzateke:

1-870000	DIRUZAINZAKO	GERAKINA	GASTU
OROKORRETARAKO.....			40.090,64€

Eta aipaturiko diru sarrera hurrengo gastu partidaara bideratzea proposatzen da:

1-4540-621000 AURKIDIKO BIDEA.....	40.090,64€
------------------------------------	------------

Udalburuak bozkatzera deitu du eta Udalbatzak **hurrengo aho batez erabaki du:**

**1.- 2/2024 aurrekontu aldaketari hasierako onespina ematea.**

**2.- 2/2024 aldaketa erakustaldi publikoan jartzea 15 egunez Udaletxeko irgaraki-taulan argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.**



ZUBIETAKO UDALA  
(Nafarroa)  
31746

## 5. AURREKONTU ALDAKETA 3/2024.

Kontuhartzaileak 3/2024 aurrekontu aldaketaren inguruan egindako txostena aurkeztu du. Txostenean proposatzen den aurrekontu aldaketa ondorengo hau da:

Alde batetik, diru-sarrera partida hau izango litzateke:

1-870000 DIRUZAINTZAKO GERAKINA GASTU OROKORRETARAKO  
.....730€

Eta aipaturiko diru sarrera hurrengo gastu partidaara bideratzea proposatzen da:

1-1522-46220 ZUNDA ETXEA.....730 €

Udalburuak bozkatzera deitu du eta Udalbatzak **hurrengo aho batez erabaki du:**

1.- 3/2024 aurrekontu aldaketari hasierako onespena ematea.

2.- 3/2024 aldaketa erakustaldi publikoan jartzea 15 egunez Udaletxeko irgaraki-taulan argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.

## 6. AURREKONTU ALDAKETA 4/2024.

Kontuhartzaileak 4/2024 aurrekontu aldaketaren inguruan egindako txostena aurkeztu du. Txostenean proposatzen den aurrekontu aldaketa ondorengo hau da:

Alde batetik, diru-sarrera partida hau izango litzateke:

1-870000 DIRUZAINTZAKO GERAKINA GASTU OROKORRETARAKO  
.....605,30€

Eta aipaturiko diru sarrera hurrengo gastu partidaara bideratzea proposatzen da:

1-4140-61900 URAREN BIDEA.....605,30€

Udalburuak bozkatzera deitu du eta Udalbatzak **hurrengo aho batez erabaki du:**

1.- 4/2024 aurrekontu aldaketari hasierako onespena ematea.

2.- 4/2024 aldaketa erakustaldi publikoan jartzea 15 egunez Udaletxeko irgaraki-taulan argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.



ZUBIETAKO UDALA  
(Nafarroa)  
31746

## 7. AURREKONTU ALDAKETA 5/2024

Kontuhartzaileak 5/2024 aurrekontu aldaketaren inguruan egindako txostena aurkeztu du. Txostenean proposatzen den aurrekontu aldaketa ondorengo hau da:

Alde batetik, diru-sarrera partida hau izango litzateke:

1-870000	DIRUZAINZAKO	GERAKINA	GASTU
OROKORRETARAKO.....			1.200,00€

Eta aipaturiko diru sarrera hurrengo gastu partidaara bideratzea proposatzen da:

1-3370-62200 HERRIKO OSTATUKO SUKALDEA BERRIZEA...1.200,00€

Udalburuak bozkatzera deitu du eta Udalbatzak **hurrengo aho batez erabaki du:**

1.- 5/2024 aurrekontu aldaketari hasierako onespina ematea.

2.- 5/2024 aldaketa erakustaldi publikoan jartzea 15 egunez Udaletxeko irgaraki-taulan argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.

\*\*\*NAIARA ARRETEXEA ATERATZEN DA\*\*\*\*

## 8. OIHAN ENKANTEA: IZIARRA ETA ERREKALDEKO BORDA EGUR LOTEAREN ESKEINTZA EKONOMIKOAREN SOBRE IREKIERA

Udalburuak azaldu du Iziarra eta errekaldeko bordako oihan lotea esleitu gabe gelditu zela, ez baitzen eskaintzarik jaso. % 20 ko beherapenarekin 3.445,18 eurotan atera ziren 217,72 metro kubikoak, BEZ Gabe.

Patxi Mindegia Mutuberria jaunak, Forestal Zubieta, S.L.enpresaren izenean, eskeintza ekonomiko bat aurkezten du sobre itxi batean. Udalburuak sobrea ireki eta idatzia irakurtzen du 1.845,18 euroko eskeintza izanik, BEZ Gabe.

Gaia aztertu ondoren, Udalburuak bozkatzera deitu eta Udalbatzak **ahoz batez hurrengo aho batez erabaki du:**

1.- Patxi Mindegia Mutuberria jaunak, Forestal Zubieta, S.L.enpresaren izenean aurkeztutako eskeintza ekonomikoa EZ onartzea.

2.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.



**ZUBIETAKO UDALA**  
(Nafarroa)  
31746

## **9. ZUBIETAKO MENDIKO PISTA ETA BIDEEN ERABILERA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZAREN ALDAKETA. HASIERAKO ONESPENA.**

Udalburuk gaia azaldu du: Zubietako pista eta bideen erabilera arautzen duen ordenantza 2016ko abenduaren 9an Nafarroako Aldizkari Ofizialean publikatu zen eta gaureguneratzeko beharra du. Proposatzen diren aldaketak ikusita Udalburuak bozkatzera deitu eta Udalbatzak **aho batez hurrengoa erabaki du:**

- 1.- Zubietako pista eta bideen erabilera arautzen duen ordenantzaren aldaketak hasiera batez onestea.
- 2.- Aldaketak erakustaldi publikoan jartzea 30 egunez NAOn argitaratzen den egunetik kontatzen hasita.

## **10. XEHETASUN AZTERLANA AA16 (4.POLIGONOKO 918 LURZATIA). HASIERAKO ONESPENA.**

Udal arkitektuaren txostena ez da jaso, beraz oraindik ezin da eman hasierako onespena.

## **11. ESKAERAK.**

**11.1** Eki Gereka Amunarriz jaunak, Maestraren etxearen errentamendua utzi nahi duela abuztuaren 1ean esaten du 432/2024 sarrera zenbakia duen idatzian. Zubietako udalak, 2022ko ekainaren 21 an egindako osoko bilkuran Maestraren etxeko errentamenduan ateratzeko onartu zituen baldintza pleguak eta 5. Puntuari agertzen den bezala, kontratua uko egiteko "gutxienez bi hilabete aurretik dagokion aurreabisua egiten badio alokatzaileari".

Gaia eztabaidatu ondoren, Udalbatzak **aho batez hurrengoa erabaki du:**

- 1.- Bi hilabeteko epea emango zaio Maestraren etxea husteko. Etxea berrikusi beharko da eta egoera ikusita beharrezkoak diren neurriak hartuko dira.
- 2.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.



**ZUBIETAKO UDALA**  
(Nafarroa)  
31746

**11.2** Malen Etxekolonea andreak, Malerreka eta Bertizarana gazteen izenean, 2024ko ekainaren 8an Malerreka eta Bertizaranako gazte eguna ospatuko dute Sunbillan eta karpa bat alokatzeko udalari diru laguntza eskatzen dute eguraldi txarra eman duelako.

Gaia eztabaidatu ondoren, Udalbatzak **aho batez hurrengoa erabaki du:**

- 1.- 50 euroko dirulaguntza ematea.**
- 2.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.**

**11.3** Julian Rubio Urbietta jaunak 370/2024 erregistro zenbakia duen eskaera egin zuen. Mendrasako pista moldatzeko eskatuz. Gartziko borda eta Illarregiko bordara joateko pista kaltetuta dagoela aipatzen du.

Gaia eztabaidatu ondoren, Udalbatzak **aho batez hurrengoa erabaki du:**

**1.- Egindako eskaera kontutan izango da. Illarregiko bordara joateko bidegurutzea pasadan astean konpondu zen. Zubietan pista asko daude konpondu beharra direnak, baina Rubio jaunak egindako eskaera kontutan izango da hurrengo dirulaguntza eskaeretan.**

- 2.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.**

**11.4** Mikel Juanikorena Juanicorena jaunak 437/2024 erregistro zenbakia duen eskaera udalan aurkeztu zuen. Herriko bestetan abuztuaren 14tik 18ra txosna ireki nahi duela adierazten du. Gainera, musikariei bi egunez afaria emango die eta gazteei diruz lagunduko die euskararen eguna antolatzeko.

Gaia eztabaidatu ondoren, Udalbatzak **aho batez hurrengoa erabaki du:**

- 1.- Eskaera onartzen da.**
- 2.- Gazteekin adostu beharko du zenbat dirua emango dien.**
- 3.- Ordutegia luzatzea goizeko 6:00ak arte.**
- 4.- Txosna ingurua egunero garbia mantenduko du.**
- 2.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.**



**ZUBIETAKO UDALA**  
(Nafarroa)  
31746

## **12. ALKATE EBAZPENAK.**

Alkateak irakurri ditu emandako ebazpenak (30/2024- 45/2024 ebazpenak).  
Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

## **13. Herriko gaiei buruzko informazioa.**

Ingurumen Departamenduko Zuzendaritza Nagusiaren dokumentua ingurumen inpaktuaren azterketa, "Irakurri" parke eolikoaren proiektuaren inguruan--- 218E/2024, uztailaren 11ko ebazpena Lurrealde Antolamenduaren Zuzendaritza Nagusiarena, fibra optikaren hedatzea baimenduz--- Maxinea etxearen inguruko txostena zailtasun teknikoak azalduz, uztailaren 17koa--- 59E/2024 ebazpena uztailaren 16koa, Euskarabidea-euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzailearena Toki entitateei euskera erabiltzeko eta sustatzeko 2024ko laguntzak ematea ebazten duena, 1.160,64€ emanez—Aktibazio planaren informazioa.

## **14. Galde-eskeak.**

Ez dago galde eskerik.

Eta bertzerik ezean, 21:00ak direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

